BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4482

EBAZPENA, 2012ko irailaren 14koa, Eusko Jaurlaritzako Kiroletako zuzendariarena, Euskadiko Ehiza Federakuntzaren Estatutuetan egindako aldaketa onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen duena.

1987ko urtarrilaren 16an –132. zenbakiaz– EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatutako Euskadiko Ehiza Federakuntzaren estatutuak berriro idatzi dira.

Euskadiko Ehiza Federakuntzak, 2011ko apirilaren 2an egindako Ezohizko Batzar Orokorrean bere estatutuak onartzea erabaki zuen, eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Aldaketa hori bat dator urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Ehiza Federakuntzaren estatutuen 6 artikuluaren aldaketa onartzea eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea. Artikulu horri q) epigrafea gehitu zaio, eta honela idatzita gelditzen da:

«q) Euskadiko Ehiza Eskolaren bidez, jarduera zinegetikora heltzen diren etorkizuneko ehiztarien prestakuntza eta etengabeko trebakuntza bultzatu. Jarduera zinegetikoaren babesa sustatu, espezie zinegetikoen ustiapen iraunkorrean eragina izanez eta ingurune naturalaren hobetze eta babeserako beharrezkoak kontsideratzen diren hainbat ekintza eginez».

Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Kiroletako zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango zaio EAEko Auzitegi Nagusiari, jakinarazten den egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 14a.

Kiroletako zuzendaria,
JUAN FRANCISCO MUTILOA ALDAZABAL.